

ARRASATE


PRESS

Arrasate 1990eko Urtarrilak 27, 50. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

Akei

Gure zaborrak
erraustegian



J. NARVAEZ

Kolpez-kolpe
fossilak batzen



HÖTZ - BERO

zibro
kamin TURBO

Kanpantorpea, 2

Tfnoa: 79 70 98

79 67 54

ARRASATE

ARRASATE TELEBISTA

(ATB)

**SINTONIZATU
GURE AJUSTE-TAULA
ZURE TELEBISTAREN
23. KANALEAN
UHF_n**

***OHARRA: Monokanaldun antena duzuenok 23 kanaleko
anplifikadorea (2.000 - 3.000 pta. inguru) jarri beharko
dizue, ATBren seinalea jaso ahal izateko. Badaezpada ere,
kontsulta ezazue zuen antena jartzailearekin.***

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate Pasealekua 3 Bis, etxebeha.
20500 ARRASATE. Tfnoa: 79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Josune Biteri

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza,
Blanka Jauregi, Klarion Taldea,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,
Iñaki Aranburu, Hankamotz,
Maite Toledo, Atalataikoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3,
bis, behea. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Manuela Cernat

Nicolae Ceaucescuren erorketak pozez beterik utzi du Errumaniako biztanlegoa, hogeitalau urtetan zehar "conducator" horren diktadura itzela jasan ondoren. Papa Nöel-ek opari ederra eskaini die 1989an errumaniarrei, ziur asko inondik ere espero ez zuten ustekabe paregabea. Adituek diotenez, estalinismoari azken tiroa eman zaio. Tiro hori, zalantza guztien gainetik, garesti xamar irten zaie errumaniar gizaxoei, hildakoen kopurua handia gertatu baita. Ceaucescuren despotismoak, azkenik, hondoa jo du. Poliki poliki, estatuaren bizitzak normaltasunera itzuli beharko du, diktadorearen sikariek aurkez dezaketan erresistentzia ezabatzen doan neurrian. Normaltasuna diodanean, noski, ia mende laurden batez pairaturiko ekaitzaren ondoko normaltasunari nagokio. Ez da, beraz, ohizko normaltasuna, izan ere errumaniar gazteriak ez bait du zapalkuntzaren horroak besterik ezagutu. Hori horrela izanik, esperantzari ideki diote errumaniarrek euren bizitza berria.

"*Feliz Navidad y Feliz Año Nuevo, les estoy augurando desde mi lejana Rumania. Todavía no hemos perdido la esperanza de volver a Euskadi*". Hitz horien bitartez opa zidan Manuela Cernat-ek bere nahirik onena Bucarestetik, Errepublikako Plazaren mende hasierako

perspektiba azaltzen duen tarjeta apal bezain hunkigarri batez.

1984ean ezagutu nuen Manuela Cernat, Bilbon, Euskadiko Orkestrak eskainitako kontzertu bat zela eta. Manuelaren senarrak zuzentzen zuen gau hartan Orkestra eta, aukera primerakoa zelakoan, egun osoa aprobetxatu nuen Manuelarekin hitz egiteko. Errumaniako Arte Historiaren Institutuko zuzendariordea zen garai hartan Cernat andrea eta bere Herriaren gaineko solasaldiak bete zuen gure elkarrizketaren zatirik garrantzitsuenak.

Ordurako, Ceaucescuren esku beltzak heriotzera zigortuta zeuzkan geroago ehundaka suntsituriko monumentu artistiko eta historikoak. Emakume haren kultur planteamenduetan etorkizun ilun bati buruzko beldurra somatzen zen, bere Herriko historiaren aztarnez batera burua berriro altxatzeko posibilitatea ere ezabatzeke arriskua igerri izan balu bezala. Azken finean, sinbologiak edozein Herriren nortasun agiria azpimarratzen baitu.

Papa Nöel-ek errumaniarrei ekarritako erregalia kontutan izanik, ez nintzateke harrituko Manuelaren beste eskutitzen bat hartuko banu, Euskadira itzultzen dela abisatuz. Dударik gabe, gure elkarrizketak maila baikorragotara eramango gintuzke.

Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona



inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa:799457

GIROA AROTZAK

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

M A ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

MARTINEZ aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

Medikuen axolagabekeria

Zenbaitetan entzun ohi dugu medikuak erratu egin zirela eta fulanitorri ezkerreko besoa moztu beharren eskuinekoa moztu ziotela, edota beniganito hankan zeukan garaua kentzera joan eta koman erori zela. Jakina denez medikoak pertsonak dira eta pertsona bezala okerrak izaten dituzte beren lanetan.

Oraingo honetan nik neuk jasan behar izan dudana axolagabekeria azaltzera nator. Sendagilearengana joan nintzen ázken aldian, ez dakit nolako birusa nuela azaldu zidan, nola izan nezakeen ez zekitelara eta edonola ere, ez larritzeko, tratamendu luzea eskatzen zuen arren, sendatzen zela eta. Ikustaldi hartatik hama-

bost egun pasa direnean, etxean gutun oso formala jaso dut. Ireki eta oso poztu naiz ezer ez dudala argitzen bait dit. Egin dizkidaten analisisetan ez dela inolako birusik agertzen eta, beraz, normal nagoela. Berri pozgarri ezin ukatu. Hasierako ezustea gainditu ondoren, neure buruari zenbait galdera egin dizkiot. Nola liteke ezer ziur jakin gabe izugarizko sustoa sartzea? Ez al die axola mediku horiei pertsonak izan ditzaketan beldur eta sentimenduak?

Egia esan, honek ez du beste munduko garrantzirik, baina hitz egiterakoan kontu apur batekin ibili beharko luketela uste dut.

Eli

Santa Ageda koruek

Mondrauetar lagunok:

Aspaldiko tradizioei jarraituz, aurtan be Santa Ageda koruek, hillen lauen urtetekotan gare.

Urtero moruen, zuengandik jasotako laguntziekin premissan dauzen pertsona eta instituzioei ahal dan neurrixen lagunketie da gure asmue.

Iez jasotako laguntzie halan errepertiru zan:

- Psikopedagogikuen atendiruten dien umiendako subentzifue.....280.000
- Buru-osasunerako zentruen atendiruten dien personandako subentzifue48.000
- Geixuendako laguntzie240.000
- Paruen dauzenendako laguntzia.....590.000
- Separau dien famelixendako laguntzie.....147.000
- Janarixek eta antzeko laguntzak195.000
- DANERA1.500.000 Pta.


Bakoitxak ahal izen daun neurrixen premissa larrixenak konponketan lagundu izetie benetan pozik egotekue da. Horreatik febreroko lehenengo domekan betiko ilusifuaz urtengo gau kaleik-kale, koplak kantau eta gure poza eta umorie kontajietan.

Ia, aspaldixen desietan gauzen euri eta edurrekin busti-busti eitten garen. Zeatik ez ba!

Eskerririk asko

Santa Ageda koruek

Euskal egunkaria erosi eta irakurriko zenuke?



Koldo Zubillaga
(ikaslea)

Bai, erosiko nuke. Euskal egunkaria beharrezkoa ikusten dut.



Ane Miren Guenes
(ikaslea)

Bai, irtengo balu erosiko nuke, beharrezkoa ikusten dut, Euskal Herrian euskal egunkaria izatea.



Isabel Madinabeitia
(etxeandrea)

Bai, jakina, erosiko nuke. Hala ere, normalean erosten dudana egunkaria erosten segituko nuke.



Francisco Uribetxebarria
(jubilatua)

Dagoeneko urte asko dut, eta ohituta nago egunkari bat erostera. Ez nuke egunkariz aldatuko.

LENIZ

AUTO ESKOLA



LAISTER: AUTOBUSA eta KAMIOLA

ARRASATE - ESKORATZA

Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebisa, Adeslas (Muface) eta partikularrak

Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

Memesa

79 42 22

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goztilarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntza berrezleria)
- * Logopedia
- * Laguntza terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia

(Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10,

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	790111

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantziak	458744
-------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	797844
.....	797678

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	798777
--	--------

2 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El beso". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Vinculos de sangre". 10,30etan.
- Hitzaldia: "Perestroika. Zer gertatzen da, zergatik, nora doaz?". Hizlaria: Manuel Romero. LKI eta Iraultza Taldeak antolatuta. Monterron hitzaldi aretoan, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina.

3 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Los cazafantasmas II". 5, 7,30 eta 10etan.
- Novedades: "Vínculo de sangre". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Festibala Arrasaten. *Godfathers* talde britainiarra. Telonero La Perra taldea. 10etan Polikiroldegian.
- Festibala Oñatin. *Barrikada* eta *Taures*. Gaueko 10etan Oñatiko kiroldegian.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz. Magdalena.

4 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Los cazafantasmas II". 5, 7,30 eta 10etan.
- Novedades: "Francesco". 5, 7,30 eta 10,15etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

5 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Los cazafantasmas II". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Vínculos de sangre". 7,30etan.
- Hitzaldia: "Una respuesta teórica práctica al desafío de la incredencia hoy". Luis Gonzalez Carvajal injineru eta katedratiakoaren eskutik. 7etan Monterron hitzaldi aretoan.
- Santa Ageda ospakizunak.
- Goardiako farmazia: Torre. Ferrerías.

6 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Los cazafantasmas II". 7 eta 9,30etan
- Hitzaldia: "Prevención del cáncer de mama". Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan, arratsaldeko 4etan.
- Goardiako farmazia: Santiago Español. Iturriotz.

7 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: ez dago sesiorik.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

8 OSTEGUNA

- Jubilatuentzako dantzaldia. Abaroa jubilatuekin elkartean, arratsaldeko 6etan.
- Zineklub: "Hombre lobo americano en Londres". Amaia antzokian, arratsaldeko 8,30etan.
- Goardiako farmazia: J. A. Irizar. Erguin.

ERAKUSKETAK


Santamas Argazki Lehiaketan parte hartu zutenen argazkiak ikusgai Monterronen. Argazkiak liburutegi orduetan ikusi ahal izango ditugu Otsailaren 4era arte.

IKASTAROAK

Zeramika ikastaroak. Leintz Zeramika Eskolan. Ikastaroek lau hilabete iraungo dute otsailaren 12tik ekainaren 12ra. Bi orduko ikastaroak, astean hiru egunetan. Bi txandatan banatuak, arratsaldeko 3etatik 5etara eta 7etatik 9etara. Hasiberri eta arituentzako.

Page Maker ikastaroa. Arrasateko IMIn otsailaren 19tik 23ra bitartean. Izen emateak eta informazioa Arrasateko IMIn. Tfnoa: 79.80.86.

Aldean eraman alde guztietara



- Gipuzkoako Kutxako Txartela aldean eraman egunera egoteko. Diru-arazorik ez izateko.
- Kutxako zerbitzu guztiak eskura izateko modu automatikoan.
- Ordu-arazorik gabe.
- Edozein dendatan ordaintzeko modua izateko, dirua aldean eramaten ibili gabe. Eroso-eroso.
- GK Txartela duzu praktikoena.
- Oraindik gabe bazaude, eskuratu azkar.
- Gipuzkoako Kutxako GK Txartela aldean eraman alde guztietara.

Zure zerbitzura dauden Kutxazain Automatikoak:

- Garibaiko Sukurtsala
 - Zigarrolako Sukurtsala
 - Munareko Sukurtsala
-

GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA

“Grabea inuditzen zait euskararen historia eta egoera soziolinguistikoa hain ondo ezagutzen duen filologo batek, euskararen normalizaziorako bide neketsu eta oraindik hastapenetan dugun hau barru-barrutik bizi duen euskaltzale batek, ‘Jerga mal parida por ingenieros y burócratas’, ‘Insípida jerga de laboratorio, sin matices, sin dulzura, sin vida’ bezalako hitzak botatzea, non eta Madrilen (euskararen egoera ondoen ezagutzen den lekua, denok dakigunez). Lanean ari gara, Jon, erabilpen guzietarako balioko duen euskara bat moldatzen (literaturarako hizkera goxo, bigun, malgu, ezti eta bizia barne). Lan honetarako ideia positiborik edukiz gero, he mentxe gauzkazu zain”.

(Gerardo Markuleiak, Jon Juaristiri gutun irekia, DVren Zabaliken)

“Igoa lehenengo mailan esperientzia hartzen diharduen jokalaria da, eta zentzu horretan Zaragozako partidua ederto etorriko zaio. Dena den, zaila da jokalaria gazte bat ekipoan sartzea UEFA txapelketarako puntuak lortzeko asmotan gabiltzanean. Neurketa hauek ez dira errazak gazteentzat, ez eta Igoarentzat ere”

(Boronatek, Zaragozan emandako prentsaurrekoan)

“Arrasaten, momentuz behintzat ez dago drogomenpekotasunari erantzun egokirik emateko zentzurik. Baina lehenengo urratsak ematen ari gara. Hor dabil San Andreseko taldea lanean, eta laster jarriko du Udalak informazio bulego bat martxan psikologo baten ardurapean. Gainontzeko guztia toxikomano eta arazoa etxean daukaten familien esku dago. Beraiei dagokie aurrera jauzi egitea, drogomenpekotasunari aurre egiteko”.

(M^a Jesus Sanzek, Drogari buruzko hitzaldian, Monterronen)

Zein da Irakaskuntzaren, Erreformaren egoera lau urtetan aplikatu eta gero?

IEEren egoera Euskadin ez dut lar ondo ezagutzen, baina ezagutzen dudanagatik eta oro har, Estatu mailan gertatzen ari denagatik, guztiz garrantzitsua izan da ikastetxe hauek esperimentatzeari ekitea. Irakaskuntz Sistema arautzeko legeak jaso eta antolatu egingo ditu denentzat, eskola gutxi hauetan esperimentatu dena.

Lege berria ez da orain arte egin den Erreformaren guztiz berdina izango, zeren mundu guztiarentzat egiteak hainbat puntu aldatzea dakar, baina filosofia, aldakuntza eta joera moduan azken urteotan irakaskuntzan Erreformak sartu dituen aldaketak sartuko dira.

Orain arte Erreforma bereganatu duten ikastetxeak esperimentu hau lege finko noiz bihurtuko zain egon dira, horrek ekarriko zien egonkortasunagatik. Atzerapen dexente badakar ere, laster Parlamentuan aurkeztuko dela ikusteak aurrera segitzeko behar duten bultzada emango die, nik uste. Zeren azken urteotan, poliki-poliki joan dira, Erreformarekin frogatzeak eskatzen zien esfortzu ikaragarriagatik, eta ahalegin horrek behin betiko mamitu ez zelako beldurrak jota.

Eskertzekoa da ikastetxe hauek orain gainerako guztientzat proposatzen den egitasmoaren aintzindari izana.

Elena Martin

Madrilgo Hezkuntza Ministraritzako irakaskuntz erreformen arduraduna



beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



ERAÑA
AHOLKULARITZA
OROTARAKO
ASEGURUAK

Kontzesiño kalea 4, behea
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

AURRERATZEKO

SF
AIZKORA

AUTOZERBITZUA

Maalako Errabala 7, Tfnoa: 79 15 56

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

- * Odontologia orokorra
- * Protesi finkoa
- * Protesi mugikorra
- * Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

ARRASATE
PRESS

79 71 64



The Godfathers, larunbatean Kiroldegian

Larunbatean, otsailak 3, *The Godfathers* rock musika talde britaniarra hurbilduko da Musakolako Kiroldegira. Jaialdia gaueko 10etan hasiko da, eta britaniarrekin batera *La Perrera* taldea ikusteko aukera izango dugu. Kontzertuaren antolatzaile, Euskadi Irratia.

The Godfathers taldea bost pertsonak osatzen dute. Kantaria Peter Coyne; baxua Chris Coyne; baterian George Mazur, eta kitarra jotzen Kris Dollimore eta Mike Gibson.

The Godfathers bere garaian *Sid Presley Experience* izenarekin ezagutzera eman zen taldean oinarritua dago (talde horretan izan genituen anaiak). Bostekoa 1984-85 urteen inguruan elkartu, eta hainbat lan kale-

ratu ditu ordutik.

Bi LP: "Hit by hit", eta "Birth, school, work, death". Horietaz gain, hainbat Maxi ere.

Noiz edo noiz, mutil hauen estiloa *The Clash* taldearekin ere konparatu izan dute adituek. Agian gehiegi esatea da hori, baina pista bezala balio dezake.

Kontuak kontu, badirudi kanpoko taldeek gustua hartu diotela Arrasatera etortzeari. Azken boladan, besteak beste *Stiff Little Fingers*, *Oyster band* eta *Los Suaves* taldeak izan ditugu bixitari; etorkizun laburrean, *The Godfathers*, eta martxoan antolatuko den *Psychodelic Furs*-en ekitaldea ere. Mundu guztia asetzeko adina.

Haratuzteak-90 kartel-lehiaketa

Marian Azkoaga arrasatearra izan dugu irabazle Haratuzteak-90 kartel-lehiaketan; berarentzat, beraz, 50.000 pta.ko saria.

22 lan aurkeztu ziren lehiaketan, eta irabazlea modu benetan bitxian aukeratu zutela esan behar. Hasieran epaimahaia bost pertsonak osatzen bazuten ere, lau besterik ez ziren azaldu.

Bi lan heldu finalera, eta kasualitatea, epaimahaikideak banatuta: bi kartel baten alde, bestebientzat bestea gogokoago.

Adostasunik ez, eta tranpona jaurti zuten airera. Azkenean, zor-teak Marian Azkoagaren lana aukeratu. Zorionak.



AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES



IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

Araudi berria Teleskon

Astelehenean, Eskoriatzako Udaleko Gobernu-Batzordeak Teleskoren araudi berria eztabaidatu zuen. Proposamena Udalean Telebistaren Batzordea sortzea bazen ere, ez zuten halakorik onartu. Ondorioz, badirudi Teleskok entitate autonomo moduan funtzionatuko duela aurrerantzean, plangintza kontrolatzeko Udaleko alderdi politiko bakoitzeko ordezkariak eratu-tako taldea sortuko delarik.

Era berean, liberatu bat arituko da bertan lanean egun osoko ordutegiak. Zinegotzia den Imanol Zubizarreta hain zuzen ere.

Imanolek dagoeneko arautegi berriaren zirriborroa prestatzen dihardu, hamabost egun barru Gobernu-Batzordean aurkeztu asmoz. Aurreratu digunez, hauek lirateke arau aipagarrienak: Telesko medio publiko bezala onartzea; zentsurarik gabea. Hauteskunde garaian, Udalean inplantazioa duten alderdi



guztiak eskubide eta denbora berdinak izan ditzatela. Emanaldi elebidunak, herriarekin zerikusia duten gaiak jorratuz soilik. Edozein herritari bere burua defendatzeko eskubidea ematea. Publizitatea sartzen hastea (Udalaren urteroko milioi erdiko gastua zertxobait murrizteko), etab.

■ Abaroako kuota

Abaroa Elkarteko bazkide guztiei gogoratu nahi zaie, urtero bezala, aurten ere bazkide kuota ordaintzeko ordua heldu zaiela. Epea otsailaren 1etik 28ra zabalduko da; goizean (10:30etatik 12etara) edo arratsaldean (5etatik 6etara) pasa zaitezke bertatik.

■ Ostiralean hitzaldia

Otsailaren 2an, ostirala, ekialdeko herriei buruzko hitzaldia izango dugu Monterronen, arratsaldeko zazpiretan. Hizlaria Manuel Romero, eta gaia "Perestroika: zer gertatzen da, zergatik, nora doaz?". Hitzaldia LKI eta Iraultza Taldeek antolatu dute.

■ Al Andalus

Horixe bera izango da Arrasateko andaluzek sortu duten zentru kulturalaren izena. Igandean bildu ziren Abaroa egoitzako aretoan, goizeko 11,30etan. Zentrua sortzeaz gain, aldi baterako estatutuak ere onartu zituzten.



Santamas 89 argazki lehiaketa

Joan den asteburuan erabaki ziren Santamasak-89 argazki lehiaketako irabazleak. Hamalau partaideren artean, honako hauek izan genituen onenak: Argazki talde onena, Juan Jose Uriarte, 20.000 pta. Argazki taldetan bigarren, Xefe Mondragon, 10.000 pta. Argazki onena, Roberto Mendi, 15.000 pta. Gogoratu, bestalde, lehiaketan aurkeztu diren lanak Monterroneko erakusketa-aretoan izango ditugula ikusgai, otsailaren 4era arte.

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda


Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE



Zaindu

Zarugalde 16, 3. esk. Tfnoa: 79
13 37ARRASATE

TRAFIKO SALAKETEN KOPURUA



■ SALAKETAK 1989 ▨ SALAKETAK 1988

Ertzaintzak 1.047 salaketa 89an

136 atxilotu zenbatu ziren iaz Ertzaindegian

Arrasateko Ertzaintzak kaleratu berriak ditu 1989 urteari dagozkion datuak.

Arrasateko Ertzaindegiak Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaixo eta Gatzagako herriak ere zaintzen ditu. Gauzak horrela, urte bateko epean 1.047 salaketa jaso, eta epe berdinean 136 pertsona izan dira atxilotuak arrazoi ezberdinegatik.

Salaketa kopuru handiena, Arrasaten bertan. Kopuru horretatik, gainera, zati nabarmenena jabetzaren aurkako ekintzen ondorioz izan dela esan behar (872 hain zuzen ere, %83a). Beste denuntzia mota batzuk: pertsonen aurkako salaketak (58), askatasun eta seguritatearen aurkako ekintzen ondorioz egindakoak(58), ohorearen aurkako ekintzegtatik (10), etab.

Atxilotetei dagokienez, berriz, 58 kasutan alkoholez gainezka gida-

tzeagatik gertatu dira (%43a). 50 kasutan, ostera, jabetzaren aurka aritutako pertsonak eraman dituzte Ertzaindegira.

Bi dira, Ertzaintzaren ustetan, arazo gehien oinarri: bata, alkohola edateko ohitura zabalduegia (batez ere autoa gidatzeko orduan). Bigarrena, droga kontsumoa; lau katu omen dira lapurketa gehien atzetik daudenak, eta laurak ere heroina kontsumitzaileak.

Arlo honekin lotuta, badirudi geroz eta gehiago nabaritzen dela Arrasate eta inguruko biztanleen kolaborazioa, egoera susmagarrien aurrean (abisu gehiago jasotzen dituzte).

Bukatzeko, komentatu abuztua izan zela hilabeterik lasaiena, herria benetan hutsik gelditu zelako edo. Oraindik behintzat, joan ere joan gaitzke trankil oporretara!

Usteak uste...

Itxura onik ez zuen eta orain jakin izan dugu saihesbidearen irekitzea, beste behin atzeratuko dela. Honez gero hamahiru hilabete-ko atzerapena darama eta norbaitek aipatu duenez, pozik egon gaitzke San Juanetarako amaitzen badute.


Puntu honetan bi gauza azier daitezke. Kontuan hartuta *Altuna y Uria* enpresak behin eta berriro egin duela gauza bera, obrak agindu baino askoz ere beranduago amaitu, alegia, Zubillagako suhiltzaileen egoitza eta Urkuluko urbidearen obrekin bezala, horrek beti dakarren kostu gehitze handiarekin, -saihesbidearen hasierako kostoa, esate baterako 707 milioitik 1.160 milioira disparatu da-, guzti hori jakinda, zergaitik ematen zaizkio horrelako obrak bere hitza hain erraz jaten duen enpresari? Gipuzkoako Foru Aldundiak izan beharko luke zeresanik puntu honetan.

Bigarrenik, Donostiako Gipuzkoa Plazatik jaso den eskutitzak saihesbidea otsailaren amaierarako amaituko dela esanez, seriotasun eskasa erakusten du. Foru Aldundiak ez al du ahalmenik agindutako epeak bete erazteko?.

Erraz, errazegi jokutzen da diru publikoarekin. Hori da horrelakoetatik zerga ordaintzaileak ateratzen duen ondorioa. Maxi Eroski eta diru pribatuz egin diren proiektuak, rirau, agindutako epeetan egin dira. Beste hauek, ostera, badirudi gure eguneroko bizitzaren parte bihurtu direla, inauguratu orduko erabat zaharkituak.

Zein hurbil baina zein uruti gelditzen den Mondragoe probintziaren hiriburutik. Horrela doakigu.

Joxe Aranzabal



Gas, gasolio eta elektrizitatezko berogailu eta aire girotuko instalazio elektrikoaren diseinua, muntaia eta mantenua

Industriaidea, B-5, ARETXABALETA Tfnoa: 79 03 03 ARRASATE Tfnoa: 79 05 18

LILURA -ek zeure moda diseinatu eta sortzen laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea. Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Opel Kadett-a, salduena 89an

Denetara 922 berebil saldu ziren Arrasaten

1.989ko datuen arabera, hona hemen zeintzu diren arrasatearren gustuak:

Opel izan dugu gehien saldu duen etxea, 202 berebiler. Inolako zalantza barik erregea *Opel Kadett*-a izan dela esan behar, 92 unitate erosi bait dira herrian. *Corsa* modelo izan da *Opel* etxearen bigarren izarra, 52 pertsonak aukeratu dutelarik.

Renault etxeak 183 unitate saltzea lortu du, eta *R-19a* agertzen da buruan, 64 arrasatearrek aukeraturiko kotxea; ondoren *R-21a*, 41 pertsonak eraman dutena.

Salmenten sailkapenean hirugarrena, *Ford*; besteak beste, 62 *Fiesta* eta 48 *Escort* saldu dituen etxea.

Hilez hile aztertuz gero, urtarilean, martxoan, uztailan eta irailean *Renault*-ek saldu zuen kopuru handiena; otsailan, maiatzan, abuztuan eta urrian *Ford* izan genuen salmenta buru; apirilean, ekainean, azaroan eta abenduan, berriz, *Opel*.

Bukatzeko, aipatu ekaina (112) eta abendua (90) izan direla salerosketarako aukeratuena; abuztuan (26), ordea, inoiz baino jende gutxiago agertu zen berebil etxeetan.

1990eko aurrekontuak

Badirudi datorren asteko plenoan onartuko dituela Udalak 1990eko aurrekontuak. Momentuz behintzat, asmo hori betetzeko ados jarri dira HB, EA eta EAJ; dena den, euren botuekin nahikoa bada ere, asmoa alderdi guztien onespena lortzea litzateke.

Jose Letona bekak

Zortzi hautagai aurkeztu dira Jose Letonaren izena gogoratu sortu diren bekak lortu asmoz.

Horiatariko bost, historiako bekaren laguntzaz "Arrasate frantsez okupazioaren garaian (1807-1814)" gaia jorratzeko helburuz. 18 hilabete epea eta 500.000 pta.

Gainontzeko hirurak, berriz, "Arrasate eta inguruetako azterketa geologikoa" egiteko. 250.000 pta.ko dirulaguntza, eta lana amaitzeko 18 hilabete epea

HHZ-EPAn ikastaroak

Helduen Heziketa Zentruak kultur hamabostaldia antolatu du, otsailaren 19tik martxoaren 2a arte. Astelehenetik ostiralera, honako ikastaro hauek emango dira bertan: argazkigintza, informatika, egurrezko lanak eta antzerkia.

Jaiotzak

Urrutia Molina, *Mikel*. Urtarrilaren 24an
Blanco Balsera, *Aitor*. 24an
Velasco Garai, *Mikel*. 26an
Heriz Unibesalgo, *Paula*. 26an



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^o Gomez doktorea
A. Ojalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^o Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Aslisa, Previsa, Caplisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE



Saihesbidea, berriz atzeratu

Atzerapenagatik, 707 milioiak 1.160era igo

Arrasateko Udala haserre dago Diputazioarekin, honen utzikeriagatik hamahiru hilabete berandutu direlako saihsbidearen obrak..

1987ko ekainean hasi ziren lanean, 1988ko abenduan amaitzekotan. Arrazoi desberdinak medio, urtebetez atzeratu zuten epea, 89ko abenduan jarritz. Bistan dagoenez, bigarren epe hori ere ez da bete. eta oraintsu jakin erazi zaio Udalari lanak martxoaren hasierarako amaituko direla.

Doazen moduan, berriz, ez dirudi saihsbidea data horretarako buka

daitekeenik. Udaleko zinegotzien eritziz, pozik egon beharko ginatke ekainerako amaitzen badute.

"*Altuna y Uria*" enpresak lortu zuen obren adjudikazioa. Ez da lehenengo aldia enpresa honek bailara honetan horrelako zerbait egiten duela: Zubillagako suhiltzaileen egoitza eta baita Urkuluko urak jeisteko urbideak ere urtebeteko atzerapenez amaitu zituen, kasu bietan kostuak ikaragarri igoaz.

Saihsbidearen kasuan ere, hasierako 707 milioiak, atzerapena dela eta, 1.160 milioira igo dira.

Drogari buruzko hitzaldiak

Aste honetan eman izan dira Arrasateko hainbat gunetan; hain zuzen ere astelehenean Zigarrolan, asteartean Monterronen, asteazkenean Erguinen, eta azken ekitaldia ostegunean San Andresen, guztiak ere arratsaldeko 7etan.

Jende ugari hurbildu zen hitzaldi hauetara, galde-erantzunen txandan ere askok parte hartu zutelarik.

Azken finean haxe azpimarratu zen, toxikomanoa bera dela aurrerako jauzia eman behar duena, eta hala nahi dutenentzat, laster jarriko dela martxan informazio bulego bat. Momentuz behintzat, nolabaiteko laguntza behar duen edonork dei dezala 79 19 21 telefonora.



LASAGABASTER

Jantzidenda

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97


Bergaran erdaraz?

Kaleratu berri dituzte Bergaran euskararen erabilerari buruz egindako inkestaren emaitzak. Inkesta azaroaren 8 eta 11aren artean burutu zen, 3.521 bergarri galdetu zitzaizkizalarik.

Emaitzen arauera, 0 eta 14 urte arteko haurren %75a euskaraz komunikatzen omen da, eta baita 65 urtetik gorakoen %62a ere.

Arazoa, 15etik eta 64 urterainokoen kolektiboan aurkitzen dugu. Datu penagarria: multzo horren %60-70ak ezagutzen du Aitorren hizkuntza zaharra; erabili, ostera, %23-24ak besterik ez.

Gure altxorrik preziatuena horrela galtzen uztea ere!



Zenbat Euskaldun

HABEk 1990eko agendan kaleratu berri dituen datuen arabera, 25.706 biztanle daude Arrasaten. Horietariko 10.961 euskaldunak lirateke, 3.979 ia euskaldunak, eta gainontzeko 10.766ak erdaldunak.

Aretxabaletan, 5.880 biztanletik 3.283 euskaldunak, 1.011 ia euskaldunak, eta 1.586 erdaldunak.

Eskoriatzan, ostera, 3.915 pertsona bizi dira; euskaldun kopurua 1.955ekoa, 471 ia euskaldunak, eta 1.489 erdaldunak.

Jaialdia Oñatin

Larunbat gauean, otsailak 3, 10etan hasiko da *Barrikada* eta *Tahures Zurdos* taldeek Oñatiko Kiroldegian eskeiniko duten Rock kontzertua. Sarrerak, aldezturik 800 pta. eta Kiroldegian, 1.000 pta.



Berrogeitamaren bat gazte elkartu ziren Portaloian, asteazken arratsaldean, *Jarrai* erakundeko bost gazte durangarren aurkako epaiketagaririk protesta egiteko. Ordu erdiz kateatuta egon ondoren, manifestaldia burutu, eta hogeitun minutuko bide mozketara egin zuten. Gogoratu aipaturiko bost gazte durangarrak pasa den astean epaitu zituztela, eta fiskalak hamalau urteko gartzela-zigorra eskatu zuela eurentzat.


Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK

Iturriotz 15,
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN
HORNIDURA OSOA
OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892



Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE


L ARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Caribai 3, 79 22 96 ARRASATE



Iturripe, 1991

232 milioiko aurrekontua onartu behar

Badirudi apirilaren bukaeran hasiko direla Iturripeko obrak, urte baten epean, hau da, 1.991ko udaberri-rirako, kiroldegi berria eraiki asmoz.

Dena den, oraindik ere hainbat mutur lotu beharra dago. Proiektua hurrengo plenoan aurkeztuko da, eta ziur asko otsailaren 9an zabalduko da obrak egin nahi dituzten enpre-

sentzako lehiaketa; martxoaren 30erako, adjudikazioa.

Guztira 233 milioiko aurrekontua onartu beharko litzateke, goiko argazkian ikusten duzuen egitasmoa bete asmoz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzez emandako konpromezuaren ondorioz, badirudi prest legokeela kirol eraikuntzaren erdia ordaintzeko (proiektu osoaren %40-45a).

Gainontzeko guztia (kirol eraikuntzaren erdia, aparkalekuak, lorategiak, etab) Udalaren kontu.

Gogoratu, Udalak irailean *Gizabiderek*ekin sinatutako akordioaren ondorioz eskuratu zituela Iturripeko instalazioak; heren bat betirako, beste bat berrogei urterako, eta hirugarren herena hiru urterako. Goian ikusten duzuen proiektua, Emilio Ormaetxea arkitektuak diseinatu du.



BEHERAPENAK




**LORAMENDI
KIROLAK**

- Lumatxak
- Anorakak...

AUKERA ZABALA

**I
R
A
T
I**

**Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80**



Xabier Arrietak, makina bat joan-etorri egin du Arrasate Press-era. *Fotozahar* sailean kolaboratzaile bikaina dugu, eta aitortu behar bere laguntzagatik testu aberatsagoak, zehatzagoak, osoagoak kaleratu izan ditugula. Mila esker, Xabier.



◀ Pasa den ostiralean ireki zuten, Sebero Altube plazatik hurbil, "7 Mares" izeneko denda. Hemen ere, justo aurrean duten Iparfreskek bezala, era guztietako jaki izoztuak saltzen dituzte (eta baita Errioxako produktuak). Argazkian Ainhoa, Marta eta Javier, dendako langileak.



Epelde

1989ko abenduaren 2an Xabier Urrutia eta Marije Antia, ezkondu ziren Zumaiako elizan, eta eztei-bidaian Turkiara hurbildu ziren. Zorionak!



Zubillagako suhiltzaileen parkean, "Sua prebenitu eta itzaltzeko irakasleentzako ikastaroei" ekin zieten urtarrilaren 23an. Bigarren txandan San

Viator, San Frantzisko Xabier, Arrasate Musikal eta Ahizke/CIMEko irakasleei heldu zaie ordua. Argazkian, txintxo-txintxo 3.30etako autobusera igotzen.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

baldana

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Kirurgia
Laborategia
X izpiak
Odontologia
Ile apaindegia
Urgentzia 76 27 97

Koldo Eleizalde 28, etxebehea.
Tfnoa: 76 27 97 BERGARA



izen propioak

◀ Oraindik ere Arrasaten ditugu Sharryn Kasmir eta Geoff Bate iparamerikarrak. Laster beteko dute urtebete gure artean, eta herriko bizimoduan ederto uzartu direla esan behar. Geoff kanadiarra da, eta ezker abertzaleari buruzko estudioa ari da egiten. Sharryn, berriz, Estatu Batuetakoa dugu, eta kooperatibismoari buruzko ikerketa ari da egiten. Ikusten duzuen bezala, Santo Tomasetan ere ez zuten jai giroa galdu nahi izan, ez eta gazta ederra dastatzeko aukera ere.

■ **Estepan Plazaola**, 28, arrasatearra, Bergarako Udaleko Euskara Dinamizatzaile berria, Karmen Urrutiaren ordeztu. Estepanek, Eskola Politeknikoan maestria eta injinerutzako bi kurtso ikasi zituen. Gaur egun Gasteizko Itzultzaile Eskolan, hirugarren maila ikasten dihardu. AEKn urtetan aritu ondoren, hiru urte t'erdia eman ditu Eusko Jaurlaritzan euskara trebatzaile gisa eta administrazioa eskalduntzeko programa berriak egiten.

■ **Juan Jose Uriarte**, 43, Arrasaten hogeitabi urte daraman bermeotarra, Santamas Argazki Lehiaketaren irabazlea. Maestria ikasketak burutu zituen Eskola Politeknikoan eta Diputazioaren beka baten bidez Italian, Diseinoa. Elektronikan eta Ulgorien lan egindakoa, azken lau urteotan *Diaran* dihardu lan egiten.

■ **Marian Azkoaga**, 29, arrasatearra Haratuzte kartel lehiaketaren irabazlea. Marianek, Arte Ederrak ikasi zituen Leioan eta publizitate agentzia batean lan egin du denboraldi batez.

Aspaldiko lagunak ditugu **Jose Antonio Altuna** eta **Alfonso Gorroñoigoitia**, enpresa pribatu eta kooperatibismoaren ordezkari finak. Aspaldi elkar ikusi barik edo, EPPko elektronika laborategiak ireki zirenean hitz eta pitzean ari izan ziren, besteek tripak betetzen zituzten bitartean ▶



◀ Ikastolako umeei ez dirudi gehiegi inporta zaienik, baina Ferixalekuko obrak hasi zirenetik, nahiko baldintza eskasetan ari dira jolasean, libre samar gelditu zaien lur apurrean. Txokoka ari diren bitartean, ingurua garabiz, kamioitzarrez, oholez, hondeatzeko makinez, burdinez eta infernuko zarataz beteta.



INDUSTRIA ETA AUTOMOZIOTAKO LABAINGARRIAK BERE INSTALAZIO BERRIETAN

Kataideko Industrialdea 1 eta 2
Musakola z/g 51 postakutxa. Tfnoa: 79 46 33 /78 Faxes: 798411 ARRASATE

URRATS
AHOLKULARITZA

CARIBAI 3,
Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37

Ferrerias. 79 87 62

AKEI, hondakinak errausteko planta

Iaz 40.500 tona zabor erre ziren bertan

Gizakiok gure eguneroko bizitzan makinatxo bat zabor edota hondakin sortzen dugu. Aintzina zabor gehienak baliogarri genituen eta guk jaten ez genituenak, txerriei edota beste animaliei ematen genizkien. Gaur egun, gizarteak izan duen garapenaren ondorioz, ez dugu zaborrez baliatzeko aukerarik. Plastikoa, lata, eta zikinkeria ugari sortzen dugu eta norabait bota edo nonbait izkutatu beharrean aurkitzen gara. Deba arroko Udal Elkarteek, irtenbiderik onena zaborrak erretzeko labea izan zitekeela pentsatu zuten eta AKEI eraiki.



AKEI-ko langile batzuk

1982tik aurrera martxan

AKEIko labea, bertan zegoen zabortegean dago eraikita. Aintzina-ko zabortegeak sortzen zituen arazoak gainditu ondoren, lurrez estali eta labea gainean eraiki zen. Zaborrek, beraz, bertan segitzen dute, lurrez estalita badaude ere.

Labe hau Estatu espainolean eraiki zen laugarrena dugu eta gaur egun zazpi baino ez daude. Deba arroa, beraz, nolabait gai honetan aintzindari izan zela esan daiteke.

Labeak Eskoriatzan hasi eta Deba arteko zaborrak erretzen ditu, Durango eta Aramaiokoez gain. Labea eraikitzean sortu ziren gastuak Gipuzkoako Foru-Aldundiak eta Deba Behe eta Garaiko Udal Elkarteek erdibana ordaindu zituzten. Foru-Aldundiak jarritako dirua bueltatzen dihardute Mankomunitateek 1983tik aurrera.

Labea bera 1980. urterako bukatuta zegoen, baina keak hozteko eta garbitzeko sisteman sortu ziren arazoak zirela medio, ez zen martxan jarri 1982ra arte.

Etzeko zaborrak soilik

Labeak urtean 45.000 tona zabor erretzeko gaitasuna du, orduan 3,125 tona erre dezakeelarik. Iaz guztira 40.500 tona zabor erre ziren.

pisatu eta hobi handi batera botatzen dira. Garabi antzeko batek zaborrak hartu eta labeetara botako ditu. Labeak parrila higikorrez osatuta daude eta bertan zaborrak erraustu bihurtzen dira. Labeak unero telebista-zirkuito itxi baten bidez zaintzen dira. Sua pizteko gasolioa erabiltzen den arren, errekin zaborra bera da. Zaborra erraustu bihurtu ondoren, zinta garraiatzaile batek kanpora ateratzen ditu. Erraustak zintan doazela iman batek burdina jasotzen du eta beste gutzia isurtegira botatzen da.

Labe honetan bakarrik etxeetako zaborrak erre daitezke. Puntu hau behin baino gehiagotan azpimarratu digute AKEIn, izan dituzten arazo gehienak jendeak zaborretara edo zer gauza botatzeagatik sortu bait dira. Zaborrak erre ondoren tubo txiki batetik pasako dira eta zabor artean burdinezko estruktura handiren bat egonez gero, zirkuitoa itxi egingo da. Ikuzkailu industrialak, haur kotxeak, etab. aurkitu dituztela adierazi digute, uztailan langile bat larriki zauritu zelarik horrelako atasko bat garbitzen zegoela. Zaborretara botatzen denarekin kontu handia izateko eskatzen dute beraz.

Hondakin gutxi berreskuratu

Burdin apurren bat baino ez da berreskuratzen, zaborren %2a gutxi gorabehera. Berreskuratutako burdina prentsa batetik pasa eta sortak egiten dira. Burdin hau labea es-

1994erako, keak garbitzeko sistema aldatu beharko zaio

Deba Garaiak 14.700 tona eramanez AKEIra, Deba Beheak 19.600, Durangaldeak 6.000 eta Aramaiok 200.

Zaborrak Akeira heldutakoan


plotatzen duen "Dragados y construcciones" enpresaren esku gertatzen da.

Gaur egun Udal Elkarteek zaborrerik energia produzitzeko posibi-

litatea aztertzen dihardute kontutan izanik labeak beste hamabost urtetako bizitza baino ez duela izango.

Keak garbitzeko arazoak

Zaborrak erretzetik sortzen diren keak tutu batzuren bidez garbitu eta kanpora ateratzen dira. Garbitze sistema hau 15ean behin begiratu egin behar da eta izan ditzakeen akatsak konpondu. Gaur egun AKEIk betetzen du bai kutsaduraren inguruan Espainiak duen arautegia, baina 1994ean Europako Ekonomi Elkar-tearen arautegia martxan jartzean, keak garbitzeko sistema aldatu egin beharko du, arautegi hau zorrotzagoa bait da.



AKEIko planta errauslea hegazkinetik ikusia

Hamelingo txirulariaren beharrik ez

Gutariko gehienok oraindik ondo gogoratzen dugu, gaur egun AKEI labea dagoen leku berean zegoen zaborteziaren egoera. Arrasatetik Kanpantzarrera joan behar zuen edonork nahita nahi ez bertatik pasatu beharra zuen eta hango usain, edo hobeto esanda kiratsa jasan. Edonola ere, hau ez zen zaborteziaren arazorik nagusiena. Zaborteziatik pasatzean denok ikusi ahal genituen hango arratoiak. Herrian makinatxo bat esames eta zurrumurru sortu ziren haien inguruan eta nolabaiteko psikosia ere bazegoela esan daiteke.

Horietako zurrumurru batzuk egia izan arren, gehienetan puztuta eta exajeratuta helden ziren gure belarrietara. Horrela gehienok entzun ahal izan genuen, urlia baserriko txakurrak egunsentian zaunka ez

zuela egiten eta, baserritarrak kezkatuak atarira irten zirenean, zakurra hilik, arratoiak burua janda aurkitu zutela. Edota labea egiten ziharduen langile batek arratoi habia batean eskabadora-pala sartu zuela eta arratoin erasoaren ondoren, larriki zauriturik zegoela.

Hala ere, bitxiaena Arrasateko Udalak ehizatutako arratoi bakoitzeko 5.000 pta. ordaintzen zitueneko zurrumurrua izan daiteke.

Egia ala gezurra, garbi dago arazo larria zirela arratoiak, nahiz eta gaur egun Mankomunitatean lan egiten duen German Berezibarrek argitzen duen bezala, hori historia izan.

Labea martxan hasi baino lehen arratoiak akabatzekeko plan sistematikoa jarri zen martxan. Prozesu honek sei hilabete baino gehiago iraun zuen. Amuzki

pozoinduak jarri ziren zaborteziaren, amuzki hauetako pozoina denboraldi bat pasatu ondoren aldatu egiten zen, aurreko erasoaren ondoren bizirik zirauten arratoiak hiltzeko. Edozein modutan ere, ez zen arratoi guztiak hiltzea lortu eta labea martxan jarri zenean, amuzkiak jartzeaz gain, astean bi kamioikada botatzen ziren zaborteziara, arratoiak hortik alde egin ez zezaten.

Arazoa nolabait konpondu zen, eta geroztik berauek hiltzeko kanpaina puntualak egin dira. Aspaldian ez da egin inolako kanpainarik eta arazoa gaintututa dagoela azaltzen digute Mankomunitatean. Arrasatek, beraz, arratoin ondotz ospetsu egin zen Hamelin herriak baino era errazagoan gaintutu zuen "arratoi-izurria".

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

Parques y Jardines S. A.

**PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA**

**LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR**

**LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ**

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

“Jende askok zorotzat gauzka”

Jesus Narvaez, kolpez-kolpe fosilak batzen

Jesus Narvaezek arrasatearrak, joan den hilabetean, Euskal Herriko fosilen erakusketa antolatu zuen Monterron Kultur Etxean. Jesusek berak bildutako fosilak ikusi ahal izan genituen. Berak bere kabuz ikasi zuen fosilak bereizten eta inoren laguntzarik gabe ari da bilatu eta batzen.



Jesus Narvaez

— *Arrasate Press: Nolatan hasi zinen fosilak bilatzen?*

— *Jesus:* Natura betidanik gustatu izan zait eta bertako gauzak ezagutzeko afizioa izan dut. Mendian asko ibilia naiz, espeleologian, eskaladan... Bestalde, mendira joaten nintzenean, inguruko gauzak begiratu eta ezagutzea atsegin nuen. Liburuak ere irakurri izan ditut, eta medizina, paleontologia, geologia eta horrelako gaiak izan ditut gogokoen. Denborarekin, beraz, gai horietan oinarritzeko maila hartu nuen. Basora joatean, lurrari, harriari begira jarri eta fosilak non egon zitezkeen asmatzen hasi nintzen eta poliki poliki fosilak aurkitzen ere bai.

— *Fosilak jasotzen noiz hasi zinen?*

— Beno, ni mendira joan eta bertako fosilak kanpoko jendeak hartzen zituela ohartu nintzen. Hemen ez zegoen inor gauza hauetan ari zenik eta Euskal Herriko ondare guztia atzerritarrek eraman behar zutenaz jabetu nintzen. Beraz, nik neuk batzea erabaki nuen. Orain dela hiru bat urte hasi nintzen fosilak batzen, guk geuk ere hemen fosilak badaudela erakusteko, ez dagoela atzerrira joan beharrik izaki bitxi edo arraroren bat aurkitzeko. Euskal Herrian aberastasun handia dagoela erakutsi nahi dut. Atzerritar asko ikusi izan dut hemendik gauzak eramaten, eta gu akklaratu ere ez gara egiten.

— *Zeintzuk dira fosilak ba-*

tzeko eman behar diren pausuak?

— Fosilak haitzetan aurkitu ohi dira. Honetan adituak ez direnek edo behintzat zertxobait ikasi ez dutenek, haitza baino ez dute ikusiko. Guk, oster, fosila ikusten dugu haitzean. Arrastoren bat edo izan dezake haitzak eta fosila nola dagoen, irekita edo itxita, etab., ikusten dugu. Fosila aurkitu ondoren, txikia izanez gero behintzat, harria hartu, etxera eraman eta ozpinetan sartzen dut. Ozpinak harria urtu egiten du eta fosila bakarrik geratzen da. Fosila handia izanez gero, zizela, kaskua etab.ekin atera behar da, arriskutsua izan bait daiteke.

Fosil handiak, oso osorik

galdetzea eta azaltzean aurpegi txarra jartzea. Burutik jota nagoela pentsatzen du jende askok. Beraz, egoera horiek ekiditeko eguraldi txarreko egunetan joan ohi naiz fosilak batzera.

Harriak ateratzeko, lubiziaz sor daitezke eta azpian harri-patu zaitzakete. Behin edo behin gertatu izan zait. Arriskua egon daitekela somatzen dudanean, lagun

nuen, Donostian eta geroztik beste erakusketa ugari egin dut. Ez ditut aditu edo zale-tuei begira antolatzen, jende arruntari erakutsi nahi dizkiot, hurrei gehien bat. Hori dela eta, era pedagogikoan antolatzen ditut erakusketak. Edonola ere, mendira joan eta fosilak aurkitzean pizten da zaletasuna. Fosilek aintzina beste izaki batzuk bizi izan zirela erakusten digute, munduak izan duen garapena aztertzeko oso baliotsuak dira.

— *Fosil asko al dituzu?*

— Milaka esango nuke eta denak garrantzitsuak. Hala ere, zenbait oso arraroak direnez, oso preziatuak dira. Bitxi hauek saltzeko eskaintzak izan ditut, baina ni ez nago horren alde. Kolekzio bati ezin dizkiot pieza garrantzitsuenak kendu. Garbitu eta sailkatu gabeko beste asko dut etxean.

— *Arrasate inguruan ba al dago fosilik?*

— Bai, asko gainera. Gurutzebarri inguruan ugari aurkitu dut, eta Aretxabaletan orain dela gutxi, kasualitatez arrain baliotsu batzuk aurkitu nituen. Euskal Herrian horrelakoak Zeaurin baino ez dira aurkitu orain arte.

“Atzerritarrek fosil ugari eraman eta gu enteratu ere ez gara egiten”

ezin daitezke atera. Beraz, zatitan jaso eta gero, etxean berriz itsatsi, osotu egin behar dira.

— *Arriskutsua?*

— Bai, segun eta non dauden oso zaila da jasotzea. Nik eguraldi txarreko egunak aukeratu ohi ditut lan egiteko. Jendeak gai honetaz gauza handirik ulertzen ez duenez, harri bati kolpeak ematen zaudela ikustean harritu egiten da eta askotan aurpegi txarrak ere ikusi izan ditut. Behin baino gehiagotan suertatu izan zait jendea hurbiltzea, zertan dihardudan

bat eramaten dut, arriskua sortuz gero, esan diezadan.

— *Bildutako fosilak non gordetzen dituzu?*

— Oraingoan etxean. Fosilak uzteko eta bide batez lana egiteko leku aproposa aurkitu nahi dut. Garbi ikusten dut fosilek Euskal Herrian geratu behar dutela, Euskal Herrian jasotakoak direlako. Arrasaten utzi nahi nituzke, baina hemen lekuri aurkitu ez, beste herriren batean utziko ditut.

— *Erakusketak ere egiten hasi zara?*

— Bai, lehena abuztuan egin



Saskian, Arrasate Kirolak C-2ra

8 talde elkarren aurka; 5 mailaz jaitsi

Amaitu berria dugu saskibaloi ligako lehen fasea, eta dagoeneko badakigu Arrasate Kirolak taldeko mutilek gogor borrokatu beharko dutela aurtengoan bigarren mailari eusteko.

Zortzi dira C-2an elkarren aurka arituko diren ekipoak, eta azkenean horietariko bost maila autonomikora jaitziko dira; hau da, hiru besterik ez dira salbatuko.

C-2an honako saskibaloi talde hauek murgilduko dira: aurrerantzean Arrasate Kirolak, Ordizia eta Atletico San Sebastian gipuzkoarrak; Patronato, Jarrileros eta Aguilas bizkaitarrak; Nafarroatik Barañain taldea, eta bukatzeko, Errioxako Cantabria.

Aurreko denboraldian mailaz igotzea lortu eta gero, arrasatearrak

itxaropentsu heldu ziren hasierako neurketetara; tamalez, lehen fasean behintzat garbi erakutsi dute benetan zaila egin zaiela bigarren mailari neurria hartzea.

Hamalau ihardunalditan, bi garaien besterik ez dituzte lortu: 71-68 Cantabria taldearen aurka, eta 97-84 Patronato taldearen aurka (bi talde hauek bigarren fasean ere arrasatearren etsai izango ditugu). Gainontzeko hamabi partiduetan, berriz, porrot egin dute.

Bataz beste 73 puntu lortu dituzte arrasatearrek neurketa bakoitzeko, eta 84 jaso. Dena den, oraindik ere aukera dute gaizki-eginak konpontzeko. Arrasatearren zaletuen berotasuna sentituko ote da Musakolako Kiroldegian? Hala gertatuz gero, ederto!

■ Mondrak enpate

Partido zaila izan zuen gure taldeak igandean, Mendizorrotzan, Alaves taldearen aurka. Are zailagoa oraindik, 2. zatian epaileak Aitor Suso kalera bota zuenean. Atezainaren aurrean autobusa jarri eta husnako berdinketaz itzuli ziren Arrasatera. Ez dago bat ere gaizki. Igandean, sailkapeneko azken postuan dagoen Anaitasuna taldea etorriko da Atxabalpera.

Aupa Igoa!

1993-94 denboraldirarte Errealarekin kontratua luzatu ondoren, Zaragozan partidu hasieratik atera zuen Boronatek Jon Igoa arrasatearra. Aukera gutxi izaten ditu Igoak Aldridge britainiarra heldu zenetik, baina Errealeko arduradunek bere etorkizuneko konfidantza osoa dutela dirudi; kontratuan ezarri duten 500 milioiko klausula lekuko.



**E D E L
TAPIZTEGIA**

*Gortina
Alfonbra
Koltza*

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,
Erakusketa: Sancho Abarca 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



p o d i u m a

**Ifigo Roldan,
igandeko Ziklo-Kross
munduko Txapelketaren zain**

Ifigok hamazazpi urte ditu; atxalbaltarra da. Dagoeneko zazpi urte daramatza txirrinduari munduan.

Dorletako Aman hasi, eta oraindik ere talde berean dirau. Ifigo ezaguna da zaletuen artean; eta ez da harritzekoa, igandean bertan Getxon Ziklo-Kross mundialetan parte hartuko bait du, Txutxi Izkarak zuzentzen duen gazte mailako selekzio espainolarekin.

Printzipioz errepidean ibiltzen hasi zen Ifigo. "Baina orain hiru urte ziklo-krossa egiteko adina heldu, eta proba egin nuen".

Emaitzak kontutan hartuz gero, badirudi hobeto dabilela espezialitate honetan. "Beno, errepidean ere ez nabil gaizki, baina emaitza hobeak lortu ditut ziklo-krossean. Normala ere bada, errepidean askoz txirrindulari gehiago aritzen delako, eta noski, zailagoa da ehun eta piku etsai gainditzea berrogei gainditzea baino".

Heldu berria da gazte mailara, baina ondo ikusten du bere burua. "Aurten ekin nion atzerriko txirrindulariekin korritzeari, eta proba batzuetan, munduko onenetarikoek aurka ibili eta zazpigarren eta hamargarren postuak ere eskuratu izan ditut. Kontutan izanik entrenatzeko denbora gehiegirik ez dudala izaten, ondo dagoela uste dut".

Ondo baino hobeto, ederto. Seguraski horrexegatik jaso du Izkararen deia Getxoko hotel batera gaintzeko aukeratuekin joandadin.



Eta gustora dago Ifigo, giro polita aurkitu du bertan. "Gehienok euskaldunak, eta ondo konpontzen gara gure artean. Kanpotik datorren jendea ere oso jatorra da".

Euskaldunak eta ziklo-krossa. "Bai, hala da, orain arte behintzat korrikalari gehienak hemendik irten dira; dena den, gutxika-gutxika maila oneko galiziar, kataluniar, balentziarrak, etab. ari dira azaltzen".

Eta noizko Iurrebaso, Duran, Sala, etab.en erreleboa? "Adinari begira tarte handia dago euren eta ondorengo artean; baina sortuko dira txirrindulariak, bai. Hor daude Igartua, Pla, pixkat atzerago gu...".

Agian, laguntza ekonomiko handiagoa beharko luke ziklo-krossak, jende gaztea erakartzeko. "Dirua errepidearen munduan mugitzen da, hemen ezer gutxi. Horregatik saiatzen da korrikalari gaztea errepidean nabaritzen, eta ez Krossean".

Ifigorentzat, amets polita da igandekoa. "Hogei onenen artean sartuko banintz...". Hala ez bada ere, Ifigo, zure hamazazpi urteek etorkizun ederre dute!

■ Pedruskok irabazi

Emaitza borobila lortu zuten San Andresekoek, Izarra Gorri taldearen aurka Araban jokaturako neurketan. 20. minutuan 1-0 galtzen hasi, baina bigarren zatian, 73. minutuan Juananek bere atean eta 92.ean Lazarok lortu zituzten Pedruskoren golak. Asteburu honetan, Zaramaga taldea hurbilduko da Garagartzara.

■ Eskubaloian bikain

Martxa ederra daramate Arrasate Kirolak Eskubaloi taldekoek. Azken ihardunaldian ere garaipena lortu zuten Musakolan, Beasaineko BKL-CAFren aurka. Bukaeran 20-18. Arrasatearrak bigarren postuan, eta asteburu honetan Bilbora doaz, ligako liderra den Loyola taldearekin jokatzera. Irabaziz gero...

■ Hernanik 0;

Arrasate Kirolak-ek 10


Ondo ibili zen Pello Hiriartek zuzendutako hamabostekoa Hernanin jokaturako partiduan. 0-10eko emaitza ederto datorkie, eskuratutako bi puntuekin azken postuetatik zertxobait urruntzeko.

■ Ohorezko mailan bai

Denboraldi polita burutzen ari dira ohorezko mailako gazteak. Molinerok lortutako golekin, 2-1 irabazi zioten Gazteleku taldeari.

■ Igeri Taldea

Arrasate Igeri Taldeak aditzera eman duenez, datorren igandean, otsailak 4, bilera orokor arrunta egingo dute Musakolako Kiroldegian.



OKENDO
KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera
udazken-neguko moda!

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

89ko gehikuntza %3,6koa izan zen Europako Merkatuan autoen salmenten rekord-a

Autogileek emandako datuen arabera, mendebaldeko Europan eta 1989.ean auto berrien salmentak %3,6an gehitu ziren eta 13,5 milioitara iritsi, bostgarren urtez jarraian rekord-a hautsiz.

Mendebaldeko Alemaniako Volkswagen taldeak, zeinetan Audi eta Seat ere bait daude, salmentetan aintzindari izaten jarraitu du Europa mendebaldean, Fiat etxe italiarrak ukan duen igokada handiari eutsiz. Sektoreko datuen arabera, Volkswagenak auto berrien salmenten %15a lortu zuen, eta Fiatak -Lancia, Alfa Romeo eta Ferrari bame- %14,8a. Hirugarrenen, %12,7arekin, Peugeot-Citroen talde frantziarra kokatu da. Laugarren postuan, berriz, Ford taldea (%11,61) eta bostgarrenean General Motors (%11), Opel eta Vauxhall bame. Ondoren Renault (%10,4), Mercedes Benz (3,2), Rover (3,1), Nissan (%2,8).



Merkaturik handienetan, AEF, Italia, Britainia Handia, Frantzia eta Espainian, hazkundeak jarraitu egin zuen iazko urtean zehar, eta bereziki Alemaniako merkatuan. Azterturiko hamazazpi merkatuen artean, lauk bakarrik (Suedia, Danimarka, Noruega eta Portugalek) ez dute hazkunderik jasan.

Dena den, bost urtez etengabeko hazkundera izan ondoren, Mendebaldeko Europako autoen merkatuak motelaldia erakutsi zuen 1989.eko amaieran, abenduako salmentak %11n erori zirelarik.


(90-01-23ko *Expansion* aldizkari-ritik)

Mikel Intxausti

Gorka

ILEAPAINDEGI
MIXTOA

Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoa: 79 96 80 eta 79 63 27
ARETXABALETA



PEÑACOBBA
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
79 14 01

ARRASATE

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
ARETXABALETA

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

BAZAR
TOKI ON

Osorik
pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

olloak,
lentuok,
akuairelak eta
eskulanak
Ferreras 25

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Construcciones ARRASATE S. L.

(antes Construcciones CODIMA)

S. Etxebarri Etxebarri Etxebarri Etxebarri Etxebarri



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa

Hezkuntz erreforma, zer dela eta?

Eskola munduan, hainbeste aldaketa ikusi ondoren, hona hemen berri ere beste erreforma bat. Arrazoirik ba al dago?

Nahiz eta 1981ean aldaketa batzuk izan eskola-sisteman (orientabideak, zikloka...) azkenengo oinarriko Erreforma 1970ean ("Villar Palasi" legea) eman zen; estrukturalki eta metodologikoki aldaketa handiak ekarri zituen: eskolatzea 14 urte arte, irakasleen hezkuntza unibertsitarioa, metodo indibidualizatuen eragina, etab.

Hogei urteotan aldaketa nabariak izan dira gure gizartean: aurrerapen teknikoak, kultura-aldaketa, titulazioen exigentzia, Europarekiko harremanak, lan-merkatua, etab.

Garbi dago eta hori denok "usaintzen" dugu, hezkuntza erregelatuak, eskolan ematen den hezkuntzak, aldaketa batzuk behar dituela.

Erreforma martxan jartzeko hona hemen ikusten diren hainbat arrazoi:

- European "sartzeak" tituluen

homologazioa eta lan-merkatua irekiagoa eta konpetitiboagoa izatea ekar dezake. Honek, Oinarriko Hezkuntza 16 urterarte luzatzea eskatzen du, "Curriculum" (*) egokiak egitea, etab.

- Gizartearen aldaketa azkarrak jende flexiblea prestatzea eskatzen du. Horretarako, "Curriculum" (*) egokiak egitea, etab.

- 1970eko Erreformak eta 1981eko Orientabideak, OHOKo azkenengo urteak (Goi-Zikloa) erreformatu gabe utzi zituzten, hiru arazo nagusi agertzen direlarik: Erdi Ziklotik Goi ziklora dagoen saltoa (metodologian, irakasleen kopuruan,...), Metodologia egokia -diziplinartekotasuna (**)- lortzeko zailtasun estrukturalak, eta Lanbide-Hezkuntzara pasatzeko dagoen etena eta prestakuntza eskasa.

- Gure gizartean eta gaurko lan-merkatuan ezin da asumitu eskolaritatea 14 urterekin bukatzea.

- Irakasleen status soziala eta pro-

fesionala "krisi"an dago. Kalitatezko hezkuntza lortzeko, irakaslegoak status egokia eduki behar du eta hezkuntzaren arduradun sentitu.

Erreformak ekar dezake aldaketaren bat zentzu honetan: irakasleen prestakuntza (hasierakoan eta iraunkorrean), klaustroaren (***) indarrean eta autonomian, etab., irakasleei dignitate gehiago emanez.

- Gaur egunean, teorikoki inor ez da ausartzen haur txikien hezkuntza eta eskolaritatea mespreziatzen, baina Hezkuntza 0 urterekin hasten dela eta Haurreskola hezkuntzako etapa lehena eta garrantzizkoa dela onartzea ofizialki, beharrezko gauza da.

Hiztegia:

* "curriculum": (Erreformako oinarriko kontzeptua da.) Oinarriko Hezkuntzaren Proiektua: helburuak, asmoak eta bideak. Ziklo batera bazarik ere aplika dezakegu

** diziplinartekotasuna: asignatura arteko harremanak, koordinazioa eta elkarlana.

*** "klaustroa": eskoletako irakasle guztien taldea.

Karion Taldea

K**abia**

Altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

Felipe Arrizabalaga

aroztegia

Legarre pabilola Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE



KORTAZAR EDARITEGIA

Pintxo bereziak GIRO APARTA

Barrenkale 16,
Tfnoa: 76 20 62
BERGARA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

ARRASATE PRESS

79 71 64

Datorkigun gripea

Gure garaiko epidemiologiak duen arazo garrantzitsuenetako bat gripea dugu. Kasu gehienetan afekzio arina bada ere, bere kutsagarritasunaren ondorioz, "izurri" hau erraz zabaltzen da.

Gripearen birusak, bat baino gehiago bait dira, arnasbideetatik sartzen dira, han ugaldtu eta bere eginkizun toxikoa garatzen dutelarik.

Gripe tipikoa bapatean agertzen da, ondoez bortitza, buruko min handia, hotzikarak, 39 gradu edo gehiagoko sukarra, muskuluetakoa eta bizkarrezurreko mina dira bere ezaugarriak.

Afektatua oso nekaturik aurkitzen da, jipoi handia hartu balu bezalaxe.

Arnasbideetako mukosak irratiturik daude, sudurrak iturri bat diru-

di, eztarrian min hartzen da eta ezula ere agertzen da.

Hiru edo bost egun igaro ondoren, sukarrak, agertu zen bezala, bapatean alde egiten du eta susperraldia hasten da.

Nekeak, jipoi-zentzazio horrek, batzuetan handia gainera, denbora gehiago iraungo du agian.

Normalean gripeak ez du arazo gehiago ematen, baina bakteriek sortutako infekzioekin konplika daiteke: belarrietakoak, bronkioetakoak...

Bere zirkunstantziengatik badira hainbat pertsona arrisku handikoak direnak eta hauei gripeak arazo larriak ekar diezazkieke:

-haurdunei (abortu-arriskua, garaiz aurretiko erditzea)

-adineko pertsonen (hilkortasuna handituz)

-jaioberri eta haurrei

Ez dago sendatzen duen tratamendurik, bakarrik bere sintomak tratatzea posible izango da: ohean egonez, ur ugari edanez, analgesikoak eta C bitamina hartuz.

Prebentzio bezala, txertaketa gomendatzen zaie arrisku handiko pertsonen (adineko, kardiopata, bronkitiko...)

Lantegietan, absentismoa gutxitzeko modu bat bezala, doan ematen da txerto hori.

Gripeak badu beste ezaugarririk: iraganean gaitza jasan dutenei ez diela inolako babesik ematen, zeren aldakorra denez birusa, hurrengo urtean ezberdina agertuko bait da; horregatik, txertoa eraginkorra izateko, "brotea" sortu eta gero prestatu beharko da.

*Eukeki Olabarrieta
Arantxa Lizaso*



Construcciones ARRASATE S. L.
(Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Muru inguruan (II)

Aurreko batean, Gabonak inguruan, Murugainera jo genuen, Arra satetik mendialderako bide arrunta aukeratu genuen. Oraingoan, ostera, Murugainerantz edo inguruetan, behintzat, dauden bide eta bidexkak aztertuko ditugu.

Untzilla auzotik, oinez joateko. Auzotik ermitaraino eta inguruan dagoen bidetik goruntz, pinadira jo. Nahiko gaizki badago ere, aukera polita da, Murugain mendiaren mendebala zeharkatzeko. Zatar samar geratu zaigu inguru hau, baina iparralderantz joan eta sekulako parajea aurkituko duzue, amildegia, ahuntzen bazkatokia, behorrak, harrapariak eta artadi ederra.

Beste aukera bat Naparrena baseritik hartu eta beherantz, lautadan doan biderantz jo hurrengo baserrira iritsi arte. Jarraitu aurreraxeago eta eskumako bidea aukeratu Garagartza aldera joango zara



Murugain Aramaiko Etxaguen auzotik


eta ezkerretarako aukeratuz gero, Gesalibarreko makina bat baserri dagoen lekura. Egundoko aldatsa dago, kontuz bada, bizikletan egin nahi duzuenok! Hemendik Gesalibar auzunera.

Aretxabaleta aldetik ere posible da: lehenengo zatia dena asfaltutik igon beharra dago. Kontuz! aldapa, erripa handia dago. Bizikletan igotze-

ko dexente ondo prestatua egon beharko duzu.

Ikutixotik gora joan gura duenak Alecopetik Ikutixorako bidea hartu eta baseritik gora egin goiko tontortxoraino, Mandoaineraino, ohizko bideari jarraitzeko.

Aukera ugari bertan daukagun mendi zoragarria dastatu eta zapal-
ketako. K.U.




Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.


Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Txalaparta ikastaroa



Noiz:

otsailaren 24etik maiatzaren 5 a
arte, larunbatero.

Ordutegia:

1. txanda:
9etatik 11etara
2. txanda:
11etatik 1etara


Izen emateak:

Gazte Zerbitzuan

Izena emateko epea:

otsailaren 17a arte

PLAZA MUGATUAK



Gomei, S.A.

**MARRUSKADURAZKO PRENTSAK
PRENTSA ESZENTRIKOAK
PRENTSA HIDRAULIKOAK
TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO
PRENTSA
TOTXOTARAKO ZIZALIAK
DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK**

Nafarroa Etorbidea 31, Tñoa: 79 55 00 Telefaxa: 79 03 97
ARRASATE

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

ARTE LENIZ

koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

Lua

gozokiak

Erdiko kale 8,
Tñoa: 79 66 75 ARRASATE

Aste gazte

• Euskadiko gazteak Espainia-koak baino tolerantetagoak eta in-konformistagoak dira.

(Javier Elzo. Soziologoa)

• Ez da gazte nahi duena, ahal duena baizik. Gazte izateko, gazte jai beharra dago (olerkaria izateko, olerkari jai beharra dagoen bezala). Eta gazte jaiotzen denak gazte segitzen du eta gazte hii.

(Unamuno)



* 90-91 ikasturtean Bulgarian ikasteko bekak. Hizkuntzak: bulgari- edota ingelesa, frantsesa edo alemana. 35 urtetik beherako lizen- tziatuentzat. Epea: otsailaren 15erarte.

* Bulgarian ikasketak edo epe laburreko ikerketa egiteko bekak. Hizkuntzak, baldintzak eta epea: aurrekoan bezala.

— Estatu Batuetan ikasteko el- kartruke-bekak eta laguntzak. Bal- dintzak: BBB edo UBIko ikaslea izan, ingeles hizkuntza ezagutu eta senide bakoitzeko 600.000 mila pta. baino gutxiagoko errenta izatea. Epea: otsailaren 15erarte.

LEHIAKETAK

— Txomin Agirre Literatur Sa- riak (Ondarroa) : Olerkia, Bertsola- ritza, Narrazioa eta Ondarroako Historia (euskaraz).

— Basauriko II Komiki Lehi- keta. Lanak zuri-beltzez. Euskaraz nahiz gaztelaniaz. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 28a baino lehen.

— Bilboko Udaleko I Komiki Lehiaketa. Gaia: "Maila berean ez- berdin. Emakumeen aukera eta es- kubideen berdintasuna". 150.000

pezetako bi diru-sari eta 100.000 pezetako beste bi kategoria bakoit- zarentzat (zuri-beltzez eta kolorez). Lanak aurkezteko epea: otsailaren 22a baino lehen.

— Eskola-Argitalpenen Sariak: eskoletan argitaraturiko aldizkari edo publikazioak. 1.saria: 400.000 pta. Lanak aurkezteko epea: otsaila- ren 15a baino lehen.

— XXVII Nazioarteko "Lena" Ipuin-Saria (Asturias). Saria: 200.000 pta. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 19a baino lehen.

BIDAIAK

— Yugoslavia "zure kasa" 43.100 pta.tik aurrera. Madriletik Zagreb edo Dubrovnik-eraino hegazkinez eta Yugoslavian kotxea zuk erabiltzeko. Itteerak: astelehen eta ostiralero. Prezio honen iraupena: martxoaren 3ia arte.

— O.H.Oko 6., 7. eta 8. mailako ikasleak talde-bidaia egiteko dirulaguntzak. Aste beteko bidaia baten proiektua aurkeztu behar da, gutxienez 17 lagun eta irakasle bat. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 15a baino lehen. BOE 90-01-11.

Informazio gehiago: *Gazte Zerbitzuan. 79 09 00 Tfnoan.*

BEKAK

— 1990-91 ikasturtean "Eguzki- energiaren instalatzaile-proiektis- ta" ikasketak (urrutikoa) egiteko 20 beka. Baldintzak: gutxienez 18 urte izatea eta BBB edo Lanbide-Hezike- ta. Epea: apirilaren 30a baino lehen.

— Atzerrian ikasteko bekak:

* Ekonomia eta Zuzenbidean li- zentziatuentzako 10 beka, 90-91 ikasturterako. Hileko 155.000 pta., matrikula eta bidaia. Epea: martxo- aren 30etik apirilaren 16rarte.

* Unibertsitate Bavariarretan ikasketak egiteko bekak. Hizkuntza: alemana. Epea: 90-02-14.

VICTOR RUIZ MELGAR

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

ESTETIKA ZENTROA

lurrundegia, opariak, jostailuak

**Z
a
r
r
a
o
a**

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**



Gipuzkoa Etorbidea 22
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- Errentan hartzeko etxabea edo merkatal lokal bila gauzak sartzeko. Tfnoa: 79 94 00
- Jantzitako pisuan logela bila. Tfnoa: 49.14.53 (Jose Manuel), gaueko 8etatik 10etara.
- Pisua salgai Urriburu kalean. Tfnoa: 79 81 79
- Pisua salgai Udalpe kalean. Tfnoa: 983-39 41 90
- Pisua salgai J.L. Iñarra kalean. Tfnoa: 79 20 03
- Pisu berri-berria Erguin kalean salgai. Gas naturala eta ur beroa, egongela, bi bainugela, sukalde homitua. Tfnoa: 79 19 96
- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Asteguntan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Neska behar da Bilbon pisua konpartitzeko. Tfnoa: 79 98 30
- Uribe auzoan aparkalekua alokatzen da. Dei 10etatik 11etara 79 69 59 tfnora.
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- Musakolan etxebizitza salgai. Tfnoa: 79 36 93. Ramón.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bi neskak tokia behar dugu Bilbon, pisu konpartituan. Deitu 79 26 62 tfnora.

LANA

- Etxeko lanak egiteko eta haurra zaintzeko neska behar dugu. Tfnoa: 79 54 04
- Umeak zaintzeko neska euskalduna behar da. Deitu 79 81 61 tfnora.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tfnoa: 79 97 52 (deitu goizetan, larunbat eta igandetan)
- Ikasle arduratsuak bulego edo antzekotan lan egingo luke. Tfnoa: 79 39 84 (arratsaldeko 6etatik 7etara)
- Edozeln lan-mota egiteko prest: garbiketa, tabernak, dendak... Tfnoa: 79 4179 (Amaia)
- Disko-pub-kafetegietan esperientzia-dun kamarera lan egiteko prest. Itxura onekoa. Tfnoa: 79 70 41 (Teles)
- Umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (gauetan eta asteburuetan) Tfnoa: 79 28 30
- Neska euskalduna O.H.O.ko hurrel klase pastikularrak emateko prest Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 79 64 82 telefonora.
- O.H.O.ko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 26 19 (Itziar)
- Neska edo andra euskalduna behar dugu etxeko lanak eta umeak zaintzeko. Etxea Uribe auzoan dago. 79 79 53 (Aranxta)
- IEE 2. kurtsoko neskak matematika eta natur zientzietako klase partikularrak behar ditu. Tfnoa: 79 39 11
- Emakune euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.

SALEROSKETAK

- Zure argazki-makinarentzako Panagor markako 200 mm-ko telea salgai. Diamentroa 62. Oso merkea. Tfnoa: 79 71 64
- Raider 2WD auto irrati-kontrolatua salgai, Challenger 250 irratiak. Baita bateriak eta beste, berri-berria. Tfnoa: 79 52 31. Iban 8etatik aurrera.
- 5 urtetik 9 urteko umeentzat bizikleta salgai BH markakoa, ia berria eta merkea. Tfnoa: 79 04 10. 6etatik aurrera.
- 4/4 neurriko bibolina salgai. Interesatuak deitu 76 52 15 tfnora.
- Narruzko jaka salgai. Ona eta merkea. 55 tailakoa ia berria 79 89 51 Tfnoa.
- Ebro M-140 kamiola SS-Y salgai txartela nazionalarekin. Interesatuak dei 81 01 61 Tfnoa.
- Saltzeko dauzkat Roland baxu amplifikadorea, Ovation baxua, Aquier baxua, Fender kitarra, Shure SM58 mikrofonoa eta foko bi, mila watiokoa bakoitza. Deitu gaueko hamarretan. Ion 79 38 96
- Sonab markako amplifikadore-digitala salgai. Tfnoa. 79 29 09
- Akal markako pletina salgai. Tfnoa: 79 29 09
- Panagor markako zooma salgai, 55-225 mm-koa. Tfnoa: 79 45 39
- Bizikletak salgai. Alkimoto GAC 15.000 pta. Luna GAC 20.000 pta. Berri berriak. Dei ezazue bulego orduetan (94) 658 20 12 Marian.
- Orbea "Deba" paseorako bizikleta. 5 pinioi. 8etatik aurrera, 79 99 82
- Commodore 64 salgai. Berria. Assembler Tutor eta guzti. 25.000 pta. Tfnoa: 79 81 14. 9etatik aurrera.
- Janet markako haur-kotxea salgai egoera onean. Eguzkitakoa eta euritakoa doan. Dei egin 79 91 77 tfnora.

ARRASATEN HILDAKOAK

M. Pilar Zumaran Galdos
Urtarrilaren 24ean. 40 urte.

Lucia Goikoerrotta Mazcariano
Urtarrilaren 25ean. 77 urte

Juan Tabares Alost
Urtarrilaren 27an. 92 urte

Ricardo Pereira Juldain
Urtarrilaren 30ean. 78 urte

M. Prisca Usabiaga Arrieta
Urtarrilaren 30ean. 80 urte

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Arrasate pasenlekua 3 bis, etxabea.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik

Begoña Aranburu: *Umie mundure ekartie dauen gauzarik polittiena da.*



Parto txarrak pe bai

Zesarea izan ezik gañetik danak etxien eitten gittuen. Zesarea bihe dala ikusten auenien Don Marinok, anbulantzia hartu eta Donostiera Maternidadera. Eta, klaro, tartien txarrak be toketan jakun. Holakuetan medikue eta bixon artien sukaldoko mahai gañien eitten gittuen: kloroformue emon eta fortexakin... ba, ondo jiretan gitzen. Umiek hildde etortie-ta be tokau jat; baitte monstruek jaixotie be; baiñe andraik etxat sekule hill.

Ama zaharra sukaldera eta gizona albora

Nik azkenerako ikesi nauen, e: ama zaharra sukaldera eta gizona ondora, zeatik amak nerbiosa egoten die; andrie kurrixkaka hasi eta amak estu, eta lehen baiño nerbiosau jarten zittuen eta orduen partue atzeratu eitten zan zeatik nerbiosa egon ezkerro matrizek eztau bihe dan moduen lanik eitten eta.

Eta gizona antxe: "ikusi andriek ze lanak eitten dittuen". "Baiñe, ni mariaui eitten naz baiñe". "Zu egon trankill, marietan baza hor dau

albuen ohie eta sartuko zaittugu hor" eta holaxe, ama zaharra sukaldera eta gizona hantxe.

Dana dala, gizonak pe danera-kuek egoten zien; batzuk agertu be ez iguel; esan "ba, mutille dauketzu". "A, bai; ba agur"; andrie eta umie ikusten juen barik aguro tabemara, zelebretan. Beste batzuk negar malkuekin emozionaute be bai, e. Umie mundure ekartie dauen gauzaik ederrena da, e!

"Gau guztie dantzan"

Orduen baserri auzuetan-eta, beti egoten zan andran bat hola partuetan eta lagunketan ibiltten zana eta askotan, ba, ondo baetorren berai deiketan eutzien. Eta behin pasau jaten anekdota bat. Domeka gox baten orduentxe mezetatik urtenda banau eta etorri jaten gizon bat: "Zu, andrie dauket partuen eta hango andriek esan dust beretzako baiño gehixau dala eta aber etorriko zaren". Juen nitzen, begiretu eta normal-normal auen Indiziño bat emon eta segittuen etorri zan, ederto. Eta, orduen gizonak esan eusten: "zu, baiñe hori bakarrik zan, gau guztie dantzan ibilli gare-eta". "Gau guztie dantzan" eta "gau guztie dantzan", azkenerako esan nutzen: "Zer esan gure dustezu horrekin?". Eta gizonorrek: "Bai, ona zala-ta bixok alkarri ebatute gau guztie dantzan ibilli ga". Andra-gizonok benetan dantzan, ona zala-ta.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Plazentziako frabikantiana:

— Zer moduz joiak pa tornillo negozio hori?

— Hainbestian be, hainbestian be... Tornillo bakoitzeko zentimo bat inguru galtzen juau baiña asko egiñan puruan ondo urtetzen juau.

Jakiña da plazentziar askok, kalekuak batez be, TS eta TZn ordezt pronunziatzen dabela: "Arrausak, legasa salsan eta gasatua jan genduan aso", esate baterako. Gañiera jakingo dozue Plaensian hiru beltz klase darella: "belsa", bel-belsa" eta "total belsa".

Behin, aspalditxo, Mardaras karrerista eibartarrak Plazentziako karreran korritzen eban. Eibarren jentia zain beren begittako Mardaras noiz pasauko. Korredoriak pasau ta pasau baiña Mardaras agertzen ez. Nerbioso, eibartar batek preguntau zotsan karrerako motordun plazentziar bati:

— Hi, eta Mardaras nun dok pa?

— Asian jatok.

— Asian? hau ze dok pa, Franzikiako Tourra ala?

Eibartar batek eta Plaentziar batek beren familixetako goraberak kontatzen ziharduen:

— Alaba zarrena estudixatzen jaukau -eibartarrak.

— Zer estudixatzen jok ba?


— Intrepetre ero.

— Intrepetre? eta ze dok pa hori?

— Etxakixat, baina batek esaten dabena bestiai kontatzia ero izan biha jok.

— A, guk horri Plaezentzian alkahuete esaten jotsau.

Juan Martin Elexpuru



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE




Meatzerreka, 1927

Mendizaleek ondotxo dakite zein lekutan dagoen metalura, inguruak uger kolorez uzten dituen ura. Horietao iturri batzuk Udalaizten magalean daude, paraje horietan harriak burdina dexente bait dauka. Hori zela eta, meatzak zabaldu ziren, hau da minak, non eta bere izenak salatzen duen bezala, *Meatzerreka* auzoan.

1927ko argazki honek horietako meazulo baten inagurazioa erakusten digu. Tresneria berria bedeinkatzen Jose Joaquin Arin, Arrasateko parrokoa. Beranduago, 1936ko urriaren 21ean, atxilotu egin zuten frankistek Jose Markiegi eta Guridi abadeekin batera. Ondarretako espetxera eraman eta hiru egun beranduago, 24etik 25erako gauean afusilatu egin zituzten Oiartzungo kanposainduan.

Parrokoaren ondoan, Emilia Berecibar gaztea, gaur egun Abaroan bizi dena. Meزامutila Xabin Arrieta, jubilatua gaur. Gainontzekoak, auzotarrak, Lemoako gazteren bat eta Bizkaiko Gallarta ingurutik etorritako hainbat meatzari. Tresneria berri honekin, harria apurtu, burdina atera eta, kablez, Bergarako labegaraietara eramaten zen.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal Inprimakiak
- Bulegoko materiala

Gurutzegrama silabikoa

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1															
2															
3															
4															
5															
6															
7															
8															
9															
10															

Ezker eskuin: 1.- Norbait bere onetatik atera. Inguruka. Poltsikoa. Juntagailua. 2.- Iristakorra. Handitu. Eduki neurri zaharra. Eramaten du. 3.- Bildu. Eskas. Arima. Danborra. 4.- Ondorio. Eta. Sarrera. Atzikia. 5.- Bai. Garau, ale. Gerra. Musika nota. Estekatua. Errepikatuz, gorotza. 6.- Lepo zapi. Bigarren pertsona. Zaindu. Miatu. 7.- Goilare. Bizkaieraz, igande. Zainduta. Gela zabala. 8.- Hortz zorrotza. Iparraldean, azienda. Arrain arraultze multzo. Pot, muin. 9.- Bokala. Hamar gehi bost. Iparraldean, zoriona. Jauregi. Oinaze. 10.- Entzumenaren urritzea. Posesiboa. Leherketa. Badauka.

Goitik behera: 1.- Emakumezkoa gurasoekiko. Bale arrantzalea. 2.- Arriskutik aterea. Itxurazkoa. Errepikatuz, nahi. 3.- Mendebaldean, dena. Arrantzuntzietan, txopaldeko bela. Urdairik gabeko haragi. 4.- Txistu, listu. Hauskor. Nafarroako herria. 5.- Harridura. Saskigintzan erabiltzen den gai. Irud., asko. 6.- Bizitza. Daukagu. Gorputz metabolismoak sortutako kondarra. Lehenengo pertsona, plurala. 7.- Jainko ejiptiarra. Itsasoa adierazten duen aurrizkia. Da. Balio. 8.- Iparraldean, istilu. Bizkaieraz, hiztuna, berritsua. 9.- Atzikia. Tresna. Bokala. 10.- Sariduna. Hodia. Ukatzeko. 11.- Suari dariona. Artopil. Zarrapastaka. 12.- Lantanoa. Ibilua. Olerki mota. 13.- Eguna. Armairua. Arrazoi. 14.- Deliberatu. Zuhaiska mota. Baldintzetan. 15.- Deitoreia. Etxeko animalia. Haserretu.

ENBIDotik hartua, ELKAR-en baimenarekin

ARRASATE
PRESS

79 71 64

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Urbarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak

kanpo eta barruko atearak

Legarreko pabiloi industriala
(behea) Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

Hondoratu egin zaituzte

Oraindik ez zara etxeko txirrina sakatzeko gauza, eta amak eramango zaitu eskutik eskolara, eta bostgarreneko Purik frutazko gozokiak emango dizkizu, eta guztiak lazandu eta maiteko zaituzte. Eta mundua zugandik urrun eta zu hortxe, errege txikia izango zara.

Gaur saiatu zara eta txirrina ukitu duzu, eta amak ez dio axolarik eman eta zuk bakarrik gozatu duzu aupada. Puriri bestalde, zuretzako zituen frutazko gozokiak amaitu egin zaizkio. Eta Gabonetan, Juan Carlos Rey de Españaren agurra telebistan entzun eta amari esango diozu, "Ama, hori gezurretako erregea da, benetakoak ez dira etxeko txirrinera heltzen".

Eta atzean gelditu dira txirrina eta errege asuntoak.

Eta nazkatu egiten zaitu ama adurra dariola jaten ikusteak, eta aitaren zentzugabeko garrasiak zure desjoeraz airean zintzilik geldituko dira. Eta konturatzen zara aste bete barru kontratua amaitzen zaizula eta garrasi sakon bat botako duzu.

Eta hutsik geldituko zara eta ez dago beteko zaituen iturririk. Eta heriotzak eskutik eraman zaitu eta guztiak egin dute negar zugatik. Hondoratu egin zaituzte.

Eta, zer?

Cecile Lemaire

Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako
materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea 8,
ARRASATE

■ **Telebistaren deszentralizazioa:** Ez bide dago gobemurik mundu honetan telebistarik itxiko duenik. Estatu kolpeak edo gobernu aldaketa gogorak ematen direnean, telebistak okupatu egiten dira, gobernu berrien erabilpenerako. Telebistak, hortaz, erabili egiten dira, hain da handia gizartean duten eragina. Errumanian ere, diktadorearen kontra matxinatu zirenek ez zuten ordura arte despotaren arma lotsagabea izan zena suntsitu, ez horixe, baizik eta matxinadaren aldeko tresna eta bozgarailu bihurtu.

Gobernuek egin dezaketena eta maiz egin dutena, besteei jartzen eragotziz, teleinformazioaren monopolioa gordetzea da, horrek dakartzan gehiekeria guzkiekin, are grabeagoak komunikabide hori diru publikoz ordaintzen denean. Horren haritik, bati baino gehiagori harrigarria egiten bazaio ere, ezkerreko gobernuek eskuinekoek bezain historial kaskarra edo txarragoa dutela esan behar, Espainiaren kasuan bezala.

TVE Francok bere neurria egin zuen. Diktadorea joanda, frankokumeek ez zituzten gotorlekuaren harresiak bota eta beste modu batean eraiki, sozialisten eskandalurako. Boterea hauen eskuetan jausi zenean, ostera, lehengo lepotik burua. UCDkoak motz gelditu ziren sozialisten ondoan. Hauek ahaleginak eta bost egin dituzte monopolio hori gordetzeko, telebista autonomikoei ahalik eta traba gehien jarri (ETBk oraindik ez du UER-en sartzetik lortu, Madrilgo gobernuaren betoa medio) eta telebista pribatuen etorrera ahalik eta gehien atzeratu eta kontrolatu. Bitartean, aurrekoan kazetari batek zioen bezala, orain arte egon den telebistarik pribatuenari publikoa deitzen zioten, guk gauza bera sinets genezan.

Zorionez, teknologiak monopolisten kontra jokatu du eta aspalditxetik, sateliteak direla, kablea dela, edo telebista autonomikoak zein herri telebistak, higituz joan dira monopolio hori herritarren mesederako. Beste erremediorik izan ez duenean soilik eman du amore Madrilgo gobernuak eta telebista pribatuen lege zekena atera zuen. Gezurra dirudi, baina ostiralean telebista katea berria aireratu zen Bartzelonan eta Madrilan, *Antena 3* delakoa, hemen El Correo Español eta DVren eskutik sartuko zaiguna.

Badakit guretzat ez dela paotxa izango, baina monopolioari beste pitzadura bat gehiago egingo zaio. Ez dago gaizki.

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **Kirolak:** Ostiralean, gaueko 12etan, boxeo; Poli Diaz-Peter Gravitusen aurka. Larunbatean, 18.20etan NBAko saskibaloia neurketa, eta 8etan Sevilla-Atletico de Madrid futbol partidua. Igandean, 18.10etan Barcelona CAI Saskibaloia neurketa. Eta gogoratu ere hor izango ditugula ikusgai Getxoko ziklo-kross mundialak (larunbatean 3etan, eta igandean 11etan eta 3etan).

■ **Paradis:** Igandean hasiko den telesaila, arratsaldeko 5.20etan. lehen kapitulua, "San Luiseko berriak". Ethan prest dago amak utzi eta bere rantxoan bizitza lasaiagoa eramateko, baina berriro ere amak hartu eta herrian dauden hiltzaile batzuri aurre egin beharko die.

■ **Lillutatua:** Asteazkenean, 9etan, Donald Sieglek zuzendutako filmea. Antzesleak Clint Eastwood, Geraldine Page eta Elizabeth Hartman. Hegoaldeko leku batean, Guda Zibila amaitu baino egun batzuk lehenago, Ammy, hamar urteko neskatxa, landetan zehar dabil perretxiko bila. Bapatean armadako untzi bat aurkitzen du, eta banean gizon zauritu bat...

bideoak



Intsektu multzoak

Intsektu espezieak milioika dira. Termita kolonia bakarra milioika lagunek osatua izan daiteke; oti multzo bat milioi bat milioiz ere bai.

Poleneztatzea, intsektuen arteko harremanak eta jarrerak eta beste gauza asko irudi lileragarriren bidez.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala


3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna


1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



Miren Bengoa S. Frantzisko Xabier ikastolan ingeles irakasten duen andereñoa da Berriak informazio saiorko

dugun hirugarren aurkezlea. Hauxe da telebista aurrean izan duen lehen esperientzia eta pozik dabilela esan behar.

Manolo Añibarro, udal apailariak zuzendu ditu Ospitale Zaharreko platoaren obrak. Bideozale handia bera, jakinmin handiz aztertu zuen kamara handia. Oraingoz, berorekin egite dira plato barruko grabazioak. Gainontzeko hiru kamarak ere laster erabili ahal izango dira.



Emititzen hasi bitartean, lanean ari dira ATBko neska-mutilak, albistegiak prestatzen batipat. Astelehen, asteazken eta ostiraletan kamarak hartu eta Berriak saioa osatuko duten albisteak grabatzera irtetzen dira, gero iluntzeko zortzietan, aurkezle eta guzti, ikusi ahal izateko.

Horrela egindako saioak informatiboen *O aleak* deitzen dira, publikora atera barik, entrenamendurako balio dute eta.

Kasu honetan Jose Antonio Torres, Bergarako epailea elkarrizketatzera joan ziren.

Kamaran Jasone Díaz de Gereñu eta galdetzen, lehenengo aldiz telebista aurrean, Bego Zubia, Arrasate Presseko kazetaria.



ENARA
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21,
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32

“EDERTU” ileapaindegia



San Andres auzoan

79 04 28 Tfnoa Arrasate



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Sua ikusten da Aries-en esparruan. Aldean darabilzun guztia kontu handiz erabili, bestela zauriren bat izan edota suhiltzaileci deitu beharrean aurkituko zara eta.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Xuhurkerian bizi den jendea daukazu inguruan, eta zeu ere horretara ohitu zarela konturatzen hasi zara. Gorriak pasatzen ari zara desio dituzun gauzak erosten ez dituzulako.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Merkataritza edota Administrazioan ekiteko aukera suertatuz gero, oraingo hau da aukerarik onena, Geminisen esparruan ez bait da ikusten eragozpenik jarriko duen planetarik.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Familia xumeko pertsona bazara eta ez baduzu gustoko bizimodu hori, oraintxe da betidanik amets egin duzun bizimodua lortzeko eman beharreko pausuak emateko unerik aproposena.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Arazo sentimentalekin nahasturik zabilta, ez bait dakizu benetan zer den nahi duzuna. Sentimentu horiek dagokien lekuan jarri arte ez hartu inongo erabakirik, damutuko zaizu eta.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Ez egin kasorik zu baino gazteagoengandik jasoko dituzun aholkuei, zuek zer edo zer lortu nahian ibiliko bait dira. Gogoan izan eskarmentua dela aholkularirik onena.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Maitasun edo finantza arloekin zerikusirik duen erabakirik hartzekotan bazara, zuhur jokatu beharra daukazu. Ixaron beroarenak joan arte disgustoren bat hartuko duzu bestela eta.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Irudimena gainezka duzu baina ez duzu jakin probetxurik ateratzen. Horrelakoak ez dira maiz gertatzen. Erme egin zaitez hurrengo baterako.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Inori laguntza ekonomikorik eskatuko badiozu familia ingurukoren batengana jo, ez egon zailantzan inongo eragozpenik gabe luzatuko dizu eta.



CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Okerreko bidetik eta arduragabekeria zabilta Kaprikornio. Darabilzun portaera horrek eteko giroa amorra dezake eta dagokionari erabaki zorrotzak har arazi. Txintxoak izaten saiatu.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Besteen gonapean zabilta azkenaldian. Honek ez dio basere onik egiten zure autodiziplinari. Zure nahiak zeintzuk diren garbi azaltzeak kalte baino on gehiago ekarriko dizu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Zorrotza zara zeure buruarekin eta zintzo aritu izan zara beti lanean. Soldata igoera edo antzekoren bat izango duzu ustekabeen.



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- * *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- * *Fresatzeko makinak*
- * *Zenbakizko kontrola*
- * *Mekanizazio-zentroak*
- * *Tornuak*
- * *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnok: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 798097

IKUS-ENTZUN

ZURE HAURRENTZAKO BIDEO DIDAKTIKOAK



BIDEO HAUEKIN

Gizartean bizi gara

Ingurua ezagutzen

Etorkizuna ezagutuz

geureganatu egiten dugu

LASTER ZURE ETXEAN!!!




Okendo 5,
79 26 99 ARRASATE



San Valerio. 1987

Roberto Mendi

Opel Kadett



**ONA BAINO
HOBEA**

Autogintza esperientzia handia duena bakarrik has daiteke 1988an gehien saldu zen autoa hobetu nahian. Horixe egin du OPELek, eta hona emaitza: OPEL KADETT berria.

Zatoz ikustera Opel kontzesionari Ofizialetara.

Zain daukazu.

BERRIA

Zain gauzkazu



TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEN: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria

Kontzesionari ofizialak

OPEL 
Hobeak esperietziagatik

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Iparagirre. Tfnoa: 72 33 71